

Errenta txikiko apartamentuak gazteentzat

Donostiako Udalak hiriko bi lekutan gazteentzat errenta txikiko 114 apartamentu egitea onartu du. Etxebizitza hauek Intxaurren eta Izan eraikiko dira, eta lanak hiruzpalau hilabete barru hasiko dira. Apartamentu bat lortzeko izena emateko epea datorren legegintzaldian zabalduko da.

Aitziber Iartza


Donostiako Udalak, gazteei begira, errenta txikiko apartamentuak bultzatzeko bi proiektu martxan jarri ditu. Jorge Letamendia Hirigintza zinegotziak azaldukoaren arabera, gurasoen etxea utzi eta beraien kabuz bizitzen hasi nahi duten gazteei laguntzea dute helburu bi ekimenek.

Apartamentuak 40-45 metro karratu ingurukoak izango dira. Hilero errenta zenbatekoa izango den erabat zehaztu

Lanak urte amaieran hastea espero du Udalak

gabe dago oraindik, baina, ziurrenik, 180 euro ingurukoa izango da. Udalak prezio hau merketzea espero du, eta horretarako, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin hitz egin du, proiektuok errentako etxebizitzaren sustapen programan sartu izan. Letamendiak azaldukoaren arabera, "Eusko Jaurlaritzak begi onez ikusi du asmoa, baina oraindik ere laguntzen gaia ez dago lotuta, eta hitz egin beharko dugu". Etxebizitza hauek, ziurrenik, 30 urte arteko gazteentzat izango dira, eta gehienez ere bost urtez bizi ahal izango dira bertan. Hala ere, etxebizitzaren errentaren prezioa eta gazteek bete beharreko baldintzak oraindik ez daude erabat zehaztuta. Baldintza hauek datorren legegintzal-

46 apartamentu izan



dian zehaztuko dira, izena emateko epea ere orduan zabalduko baita.

114 apartamentu

Egitasmoetako bat Intxaurren eta Baratzategin egingo da. Proiektu hau egiteko lehiaketa jada zabalik dago, eta lanak enpresa jakin bati ematea baino ez da falta. Hala, lanak urte amaieran hastea espero da. Baratzategin 68 apartamentu egingo dira.

Beste proiektua Izan egingo da. Udalak bertan 46 etxebizitza eraikitzeko egitasmoa onartu du dagoeneko, baina oraindik hauek egiteko lehiaketa ez da zabaldu. Litekeena da aste honetan bertan lehiaketa egiteko baldintzak eta bestelakoak aztertzea. Gauzak nola doazen ikusita, eraikuntza lanak urte hasieran abiatuko direla uste du Letamendiak.

Egitasmo honen bidez Donostiako Udalak aitzindari bihurtuko dela uste du Hirigintza zinegotziak. "Bartzelona bezalako hirietan horrelako proiektuak egin dira, baina Donostia, zentzu batean, aitzindari da. Izan ere, apartamentuok, berez ekipamendu publikoetarako ziren guneetan eraikiko dira, eta hori erabat berria da. Honek, gainera, beste hainbat lekuetan ere gauza bera egitea eragin dezake", azaldu digu Letamendiak.

Egitasmoak jada martxan dira, baina hala ere, denboralditxo bat igaroko da erabiltzen hasi baino lehen. Datorren urtea joango baita gazteentzako apartamentu hauek martxan ikusi baino lehen.

Baratzategin 68 etxebizitza

